

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Organo Zikloak bi kontzertu eskainiko ditu Iruñean

Asteartean, urriak 11, Pablo Fernándezen emanaldia eskainiko da, eta asteazkenean, urriak 12, David Gonzálezena Nuestra Señora del Huerto elizan

Lunes, 10 de octubre de 2011

Nafarroako Organo Zikloak bi kontzertu antolatu ditu aste honetan Iruñeko Nuestra Señora del Huerto elizan. Pablo Fernándezek asteartean, urriak 11, G. Fescobaldi, Buxtehude, J.S.Bach, C. Fanck eta J. Langlais-en obra interpretatuko du, 20:30ean; David Gonzálezek, berriz, asteazkenean, urriak 12, ordu berean, Cabezón, Frescobaldi, Correa, Couperin, Viola, Buxtehude, Bach eta Brahms-en obra.

Pablo Fernández iruindarra da, eta hiri horretako "Pablo Sarasate" Kontserbatorioan piano-ikasketak egin zituen. Urteetan zehar, Fiteroko Monasterioko organo-jolea izan da, udalerrri horretako "Santa María la Real" abesbatzari lagunduz. 2007. urtean, "Fitero, Monasterio baten ondarea" organoko kontzertuen zikloaren barnean aritu zen.

Gaur egun, organoko ikasketak egiten ari da "Pablo Sarasate" Kontserbatorioan Raúl del Toro irakaslearekin. Iruñeko San Lorenzo parrokiko organo-jolea da, eta sarritan Iruñeko Orfeoari laguntze dion organo-jole lanetan aritzen da.

David González, berriz, madrildarra da, eta oso goiz hasi zen musika-



Música para
Órgano
en Navarra

XXVII CICLO
20 agosto - 28 octubre 2011

AUDICIONES-CONCIERTOS-MESA REDONDA
Baigorri • Larraga • Lerín • Mañeru • Pamplona
Orreaga/Roncesvalles • Uztárroz

2012    

www.navarra.es/organo

2011ko Nafarroako Organo Zikloaren horma-irudia.

ikasketak egiten hiri horretako musikaren udal-eskolan, ondoren Musikako Goi Kontserbatorioan sartu zen arte. Beste maisu batzuen artean, T. Naranjo, J. Soriano eta A. de Vicente-rekin ikasten du bertan.

Gaur egun, organo-ikasketak egiten ari da Iruñeko "Pablo Sarasate" Kontserbatorioan Raúl del Toro irakaslearen eskutik, eta musika barrokoaren interpretazioko zenbait ikastarotan parte hartzen du, Jesús Gonzalo eta Fabio Ciofini irakasleekin, besteak beste.

Piano-jole moduan, kontzertuak eskaini ditu Espainiako hiriburu eta udalerrietan. 2010ean, 2010eko Xacobeoa zela-eta, Errioxako Gobernuak "Kultura Santiago bidean" kontzertuen zikloan parte hartzeko gonbidatu zuten. Santa María de La Redonda-ko (Logroño) eliza-katedralean organo-jolea da, eta Alcalá de Henaresko Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziatuta dago.